



Ekaitza eta beste 34 ipuin Kate Chopin

1) **“Emantzipazioa”**.-

Oso ipuin laburra da, baina indar handikoa (ikusgarria ia-ia). Emantzipazioaren alegoria eder eta ezin iradokitzaileagoa. Gaur egun, emantzipazioaz hitz egiten dugunean, gurasoen etxetik beren kabuz bizitzeko alde egin nahi duten gazteak datozkigu burura. Baina litekeena da emantzipazio-mota hori ez egotea Kate Chopinen buruan, beste emantzipazio-mota batzuk baizik. Adibidez: emakumeen, esklaboen, pobreen emantzipazioa eta, azken batean, aske izatearekin amets egiten duen edozein gizabanakoren emantzipazioa, bere ametsaz kontzientea izan ala ez.

2) **“Kontu bat auzitan!”**.-

Ipuin hau aurrekoa baino modu konplexuagoan garaturik dago (oso zaila ez dena, luzeragatik behintzat). Nire ustez, hobe da irakurri ahala pertsonaien izenak apuntatzea haria ez galtzeko, eta horrek berdin-berdin balio du ipuin honetarako edota hurrengoetarako (nahiz eta ipuin laburrak izan, ulermen hobea lortzen da, gure kulturatik eta gure hizkuntzatik kanpoko izenek askotan nahasmena eragiten digutelako). Eleanor Gail eta Charles Faraday senar-emazte gazteek beren garaiko gizartearen eskemak hautsi dituzte; eta Kate Chopinek horren erretratua egin digu. Prezio jakin bat ordaintzen dute horregatik (familiak, lagunak eta ezagunak mesfidantzaz begiratzen diete...). Nire ustez, hauxe litzateke mezua: pentsamolde berri bat izan dezakegu, ikuspegi berri batetik ager gaitezke mundura, baina horrek ez du esan nahi gauza batzuk izango ez direla... beti izan diren bezala. Adibidez, maitasuna eta jelsia garai eta ideologia guztietatik bizirik atera diren bi klasiko dira. Ipuinean badira nire latitudeetan normalean erabiltzen ez diren hitz bakan batzuk (molokot, ameneko, aldeztu, aldaratu...), baina kontakizunaren hariari jarraitzea eragozten ez dutenak (une horretan hiztegi batean kontsulta egitea ondo ez badatorkizu). Honezkero denok dakigu Joxe Mari Berasategi Zurutuza itzultzaile zorrotza dela bere buruarekin, eta, beraz, zorrotza ere bere irakurleekin. Ondo iruditzen zait. Eta hori ez dut esaten bere hiztegiarengatik, baizik eta askoz garrantzitsuagoa den beste zerbaitengatik: bere sintaxiagatik (hizkuntza ororen benetako arima baita).

3) “Chevalier doktorearen gezurra”.-

Laburra baina oso esanguratsua. Gizatasunez jokatzearen garrantzia nabarmentzen du ipuin honek; hori bai, gizartea hipokrita da eta ordainaraziko dizu. "Bizitzaren zirkunstantziak" eragindako prostituzioaren salaketa ere bada. Eta genero-indarkeriaren salaketa ere bai (horren espresiorik muturrekoenean: hilketa).

4) “Errekaren beste aldean”.-

Ipuin honetan itzultzaileak ahozko euskarara jotzen du beltz arrazakoen hizkera ezaugarritzen saiatzeko. Ondo ulertzen da, eta, gainera, ahozko adierazpenaren xarma du. Pittin bat itxia da, batzuetan, baina ez da problematikoa irakurtzeko orduan (gustura irakurtzen da, behar den intonazioarekin). Ipuin bitxi samarra da. Emakume beltz bat daukagu, txikitik oso esperientzia traumatikoa bizi izan zuena, eta horrek bere txabolan isolatzeraz edo bakartzera eraman du. Arrazoi oso indartsu batek bakarrik bultzatuko du trauma gainditzera: zerbitzatu zuen familiako haur zuri batengana sentitzen duen maitasunak. Kate Chopinek bizitza egokitu zitzaion gizartearen kontraesanak azaleratzen ditu (ez da harritzekoa bere garaiko argialetxeetako ateak itxita topatzea).

5) “Neguaren ondotik”.-

Hemen, ipuin honetan, pertsonaia izugarri bakarti bat dugu protagonista, baina beti ez da horrela izan. Gerra Zibiletik bizirik atera den arren, trauma osteko estresak ermitau bihurtu du. Ustekabeko gertaera baten ondorioz, berriz ere bizilagunekin konektatzen du, eta bere bizitza urrundua eta baztertua uzten du bertan behera. Sezesio Gerra 1981ean piztu zen; Kate Chopin 1850ean jaio zen. Beraz, gerra zibilari zegokion guztia oso presente zegoen garai hartako gizartean.

(Ipuin hau irakurtzen ari nintzela, konturatu naiz zergatik erakartzen nauen hainbeste Joxe Mari Berasategiren euskarak: badu zerbait basatia. Baso batzuk gizakiaren eraginez sortuak dira; beste baso batzuk, ordea, direna baldin badira, gizakiaren eraginetik urrun garatu direlako da, hain zuzen. Baso basatiak azken hauek dira. Baso guztiak dira ederrak, baina benetako basoak baso basatiak dira, beren erritmoan eta beren legeen arabera funtzionatzen dute eta. Baso horietan topatzen dugu ondoko hitzen benetako esanahia: "dibertsitate", "jatorri", "benazko", "naturaltasun"... Baso horietan, historia urtu egiten da eguzki galdatan dagoen izotz puska baten gisa... Basoa hor dago eta inguratzen zaitu, nonahi dago, eta haren misterioa sumatzen duzu; eta, orduan, basoan sartzen zara, eta gero eta gehiago barneratzen zara, harik eta, nolabait, aparteko unibertso horren parte sentitzen zaren arte...).

6) Bênitou-tarren esklaboa.-

Oso ipuin laburra hau ere. Gizon beltz, zahar bat, bere “familia” galduaren bila. Funtsean, norberaren nortasunaren bilaketa da eta esklabotasunak berekin ekarri zuen gizartearen eta familia askoren gainbeherarena. Gizartean egoerarik okerrean dauden pertsonetikiko elkartasuna, hurbiltasuna eta enpatia erakusten ditu beti egileak.

7) McEnders Andereñoa.-

"Pentsamendu garbiko" gizartearen hipokrasiari aurre egiteko prest agertzen da beti Kate Chopin. Oraingoan, konderriko gizonik boteretsuenetako baten alabak egia desatsegin bati egin beharko dio aurre. Eta hortik aurrera, pentsatzekoa da bere munduak behea joko duela. Ez zaio hain erraza izango besteak epaitzea. Bere puritanismoa agerian geratuko da. Lagun-hurkoa epaitzeko orduan protagonistak darabiltzan zurruntasuna eta intrantsigentzia beraren aurka bihurtuko da. Izan ere, Kate Chopinek horixe bilatzen du: egia. Eta, askotan gertatzen den bezala, egia deserosoa izan daiteke; baita suntsitzailea ere. Idazleak, ziztrinkeraren hozkadaren aurkako antidoto baten aurrean jartzen gaitu.

8) Loka.-

Hemen protagonista neska indiar mestizo bat da. Beste pertsonaia bat apurtuta eta sozialki baztertuta. Horrelako pertsonaiak egilearen inspirazio-iturria dira. Baina ez da haiengan inspiratzen irakurlearen gozamenerako... salatzen baizik! Kate Chopinek bere helburua finkatu, apuntatu eta jarraian... tiro egiten du. Ez ditu balak jaurtitzen, itua bete-betean jotzen duten hitzak baizik. Kate Chopin bihotz onekoa zen, solidarioa eta konprometitua. Eta behartsuenen zerbitzura jarri zuen bere idazluma. Gogoko dut egilearen alderdi humanista hori.

(Joxe Mari Berasategik euskaldun bezala sentiarazi izan nauena adierazteko modu alegoriko samar bat ere etorri zait burura. Itzultzailea imajinatzen dut zaldi ilun eder batera igota. Zaldi honek euskara sinbolizatzen du. Eta zaldunaren eta zaldiaren arteko konpenetrazioa izugarria da. Zaltuts zamalkatzen du, zelarik eta uhalik gabe alegia. Berak esaten dio zaldiari nora joan behar duen, eta zaldiak, esaneko, esandako lekura eramaten du, baina zaldiak berak aukeratutako bidetik. Egunaren amaieran, gaez, itzultzailea zalditik jaitsi eta bere etxean sartzen da, landa-eremu batean (muino, zelai eta mendiz inguratuta). Eta zaldia norabait joaten da, gaua pasatzeko. Hurrengo egunean, zaldizkoaren eta zaldiaren arteko elkarrizketa berriro hasiko da).

9) Dantzaldi akadiarrean.-

Beltzak, mestizoak, kreoleak, landa-giroa, maitasuna... Ipuin honetan, gainera, agerian jartzen da maitasunaren aurpegi apetatsu eta kaskarina, gizakiaren izaera aski ondo definitzen duena.

10) Bisita bat Avoyelles-era.-

Hemen ere gizon-emakume beltzak ditugu protagonista. Beste behin ere, maitasunaren bi aldeak: zoriona eta zorigaitza. Kate Chopinek arraza beltzeko pertsonen gizatasuna azpimarratzen du. Garai eta leku zail batean egiten du: ez dira urte asko igaro gerra zibila amaitu zenetik, eta lurralde horiek Konfederazioaren feudoak dira...

11) Natchitocheseko joan-itzulia.-

Liburu honetan ipuin oso laburrak eta hain laburrak ez diren ipuinak bildu dira. Honako hau, hain laburrak ez direnetakoa da. Kontakizun honetan "itxurak", "azalkeriak" agertzen dira, eta, denok dakigunez, itxurak askotan engainagarriak izaten dira... Ipuin honetan, batez ere, arraza beltzeko haurrak eskolara joateko eskubidea eta beharra planteatzen da, eta endemas, gainerako ikasle zuriekin nahastuta (ikasgela berean alegia). Hainbat arrazatako pertsonen arteko bizikidetzaren gaia askotan agertzen da liburuan zehar. Argi dago egileak kezka zuela gai honekin, eta are argiago dago bere gizatasunak arrazakeria arbuiatzera bultzatzen zuela. Kate Chopin beti egon zen ahulenekin, gizarteak baztertutako edota gaizki tratatutako pertsonekin. Eta berriro maitasuna, baina erromantizismo handiegirik gabe, aurreko ipuinean bezala. "Natchitoches" izena hainbat aldiz agertzen da liburuan zehar, "Akadia" ere agertzen den bezala... Gabriel García Márquez-en "Macombo" ospetsua ekartzen dit gogora, neurri batean.

12) Mamouche.-

Hau oso ipuin polita da. Alderai dabilen Mamouche izeneko gazte batek babesa topatuko du gertuko familiarik eta oinordekorik ez duen sendagile erretiratu baten etxean. Sendagileak Mamouche gazteaz arduratzea erabaki du: etxe bat eta bizitza duin bat eskainiko dizkio. Liburu honetako protagonistak ondo sustraitutako pertsonak izan ohi dira, hau da, elkar ezagutzen dute, familia- eta auzo-harremanak dituzte, adinekoek gaztetan ezagutu zituztenak gogoan dituzte oraindik... Hori dena beti agertzen da egilearen kontakizunetan; garai bateko landa-espirtuaren parte izanik. Liburua izen bitxiz beteta dago, eta izen hau, Mamouche, izen xeble horietako bat da, dudarik gabe.

13) Célestin andrearen dibortzioa.-

Dibortzioa dugu hizpide oraingoan; garai hartan gai hau ia-ia tabua zen... Senarrak ez du behar adinako mailarik senar gisa, eta emazteak atera behar du aurrera familia osoa, berak bakarrik. Gaurkotasun handiko... gai zahar bat!

14) Azélie.-

Maitasuna *c'est la foule*. Baina maitasuna ez ezik, besterik ere badago. Esaterako, neska beltz bat dago, bere familiari oinarrizko produktu batzuk eramateko lapurreta txikiak egiten dituen. Kate Chopinek ez dio uko egiten ez maitasunari ez kritika sozialari. Duintasuna besterik ez du nahi bere jendearentzat. Eta inguruetako gizon-emakume beltzak bere jendartearen parte ditu.

15) Bayou Saint Yohn-go andere bat.-

Maitasun debekatuak modu aski xaloan garatu daitezke, tragedia agertu eta gauzen ordena aldatzen duten arte. Beste aipamen bat gehiago Amerikako gerra zibilaren esperientzia mingarriari buruz. Eta giza zorrotzasunaren eta psikologiaren adibide ederra.

16) Bayou Têche-ko Jaun bat.-

Pertsonaia pintoreskoak ugari dira Kate Chopinen erretratuetan. Berriro ere topo egiten dugu beltz arrazako gizon-emakumeekin; duinak dira, zuriekin fidagaitz, zuriekin minduta, baina azkenean elkar aurkitzeko modua aurkitzen dute. Kate Chopinek beti erakusten digu beltz arrazako pertsonen alderik gizatiarrena. Gerra Zibil batean amaituko zen gai honen aurrean posizionatzeko bere modua hori izan zen.

17) Sabine.-

Emakume bati tratu txarra ematen dion alkoholiko anker batek lezio on bat hartuko du. Hemen, berriro ere, Kate Chopinek bere alderdirik sozialena erakusten du. Bai, emakume aurreratua da bere garairako, eta ez du zalantzarik bere garaiko emakumeek jasaten zituzten tratu txar sistematikoak (ezkontzaren barruan gertatzen zirenak) salatzeke orduan. Baina hori beti egiten du era burutsu batean: ez du panfletorik egiten, literatura baizik. Labur esanda, oso ondo karakterizatutako istorioak, egoerak eta pertsonaiak sortzen ditu pintzelkada bakan batzuekin. Eta badaki idazten, jakina.

18) Emakume errespetagarri bat.-

Hemen, beste behin, maitasun debekatuen erakarpena sentitzen dugu (ezkontzatik kanpoko harreman sentimentalak). Baina harreman horiek dituztenak ez dira gizonak bakarrik, emakumeak ere badira. Zerbait aldatzen ari da; zerbait esaten saiatzen ari da egilea. Kate Chopinek, agian, oso ikuspegi frantsesa du bizitzari buruz... Badakit topiko bat besterik ez dela, baina baliteke zerbait gehiago izatea. Agian, kultura frantsesak beste kultura batzuek baino ikuspegi zabalagoa izan du... zenbait gairen aurrean, behintzat.

19) Izeba Cat'rinette.-

Egileak bihotz oneko pertsonak erretratatu ditu, sakrifizio handia egiteko gai direnak arrazoi humanitarioengatik edo, besterik gabe, zuzena dena egiteagatik.

20) Dresden andre bat Dixie-n.-

Ipuin honetan beste horrenbeste gertatzen da. Pertsonaiak sakrifikatu egiten dira bigarren pertsona baten onerako; kasu honetan, neskato baten onerako. Pertsonaia hauek, liburuan zehar, normalean arraza edo/eta jatorri apalekoak izaten dira. Pobrezia gorrian bizi izan arren, haien ontasuna, gizatasuna eta duintasuna nabarmentzen ditu egileak.

21) Lilak.-

Ipuin hau modu berezian nabarmentzen da gainerakoen artetik. Erlijiotasuna urtean pare bat asteko zerbait izatera mugatzen da. Gainerakoa, diva dirudien emakume baten bizitza alai eta mundutarra da. Parisen kokatuta dago, New Orleansetik eta Natchitochesetik urrun. Protagonista emakume bat da (askotan bezala). Eta garrazki egingo du negar, bere burua erlijio-gordeleku horretatik kanporatuta ikusten duenean, ezin izango baita inoiz bertara itzuli. Ziur aski, komentu hura inkongruentzia bat besterik ez zen bere bizitzan, haurtzaroarekin lotzen zuen azken lokarrietako bat... Ipuin honek joera orokorrarekin hausten du: hiritarra, europarra, paristarra da eta.

(Bitxia da, baina gainerako ipuinekin alderatuta, Hego Euskal herrian gutxi edo deus gutxi erabiliak diren hitzen kopuruak nabarmen egiten du gora ipuin honetan, Maryse Condéren ipuinak gogorarazteraino. Hiztegi aldetik, puztuegi, akaso...?. Hala ere, ederra, oso. Agian, 34 ipuinotako onenena edo onenetako bat).

22) Damua.-

Emakume bakarti bat, lanari emana bizi dena eta, bat-batean, bere bizitzan dagoen hutsune handiaz ohartzen dena. Egia esan, hutsune horrek berdin-berdin sentitu lezake gizon batek zein emakume batek, eta bereziki galdera honekin dago loturik: zerk bete dezake hutsune existentziala familiaz zaintzeak bezainbeste? Neure buruari galde egiten diot Kate Chopin ez ote den hemen kontserbadoreegi agertzen... Baina, ziur aski ez. Soil-soilik dio ez geratzeko hor zure negozioez bakarrik arduratzen, zure komunitateaz ere arduratzeko, zure komunitatea osatzen duten hurrez ere arduratzeko. Izan ere, beltz arrazako haur horiek, bizitzaren zentzua agian ez, baina bizitzaren zentzuetako bat ziur irakasten diotela.

23) Musua.-

Kate Chopinen ipuin laburrek harridura sortzen dute giza psikologia hautemateko eta interpretatzeko orduan erakusten duten zorroztasunagatik, bai ikuspegi positibotik bai ikuspegi negatibotik.

24) Ozème-ren oporrak.-

Kate Chopinen pertsonaiak karakterizatzen dituen gizatasun handiak goia jotzen du ipuin honetan.

25) Arima sentimental bat.-

Maitasun platoniko bitxi bat, erabat sekretua, frustragarria eta erruduntasun-sentimendu baten eragile, protagonistaren erlijiotasunarekin eta objektu maitatuarekin lotua gizon ezkondu baten inguruan.

26) Haren gutunak.-

Ezkontzaren barruan debekatutako harremanak liburu honetan behin eta berriro agertzen diren gaiak dira, neurri batean; hala ere, kontakizun bakoitzean egoera desberdina da, pertsonaiak desberdinak dira, eta perspektiba horrek gaia errepikakorra izatea saihesten du. Protagonista dirudien emakume hotz eta barearen itxuraren atzean, oso bestelako barne-mundu bat ezkututzen da, eta barne-mundu horrek, inoiz sentitu ez zuen eta inoiz berriro sentituko ez duen zerbait sentiarazi zioten gutun batzuekin lotura du. Emakumea hiltzean, zuzen jokatzearen eta jelsien artean aukeratu ezinez dabil senarra, eta oraingoan emaitza tragikoa izango da, emaztearen azken nahiari kale egiten ez badio ere, gutunak suntsitzen baititu... irakurri gabe.

27) Odaliek meza huts egin zueneko.-

Ipuin ederra da hau. Egia esan, sentsazio hori ohikoa da Kate Chopinen ipuinetan: "Zeinen txukuna!", etortzen zaizu burura ipuin bakoitzaren amaieran.

Liburu honetako kontakizun laburretan, emakumezko protagonistak nagusi dira eta ahizpatasun moduko bat dago beraien artean. Pertsonaia pintoreskoak dira, oso sustraituak, eta beren alderdirik gizatiarrena azaltzen dute. Kotoi-soroak, maitasuna, heriotza, auzo-harremanak, eskuzabaltasuna, elkertasuna, aurrera egiteko zailtasunak, bidegabekeria, baliabiderik eta aukerarik eza...

(Kate Chopinek oso ikuspegi soziala eta kritikoa du bere garaiko gizarteari buruz. Baina ez da panfleto-egilea, literatura-egilea baizik. Literatura egiten du. Pintzelkada azkarrekin pertsonak, egoerak, paisaiak, sentimenduak... deskribatzeko gai da. Haren begirada zorrotza, sakona da, eta pertsonengan onena bilatzen du; bilaketa horretan, ordea, batzuetan okerrena ere aurkitzen du, baina gehiagotan klase menderatzailean, menderatuan baino).

28) Ustekabea.-

Ipuin hau benetan "ustekabe" handia da, ohiko gaietatik apur bat aldentzen baita. Badu halako originaltasun-ukitu bat, eta, beste behin ere, protagonistekin irakurle gisa hartu-emanetan jartzean, harrituta sentitzen zara beraien erreakzioekin.

29) Fedora.-

Hemen, egileak, oso modu diskretuan, irakurlea jartzen du musu "lesbiano" baten aurrean. Egia esan, Camilla ez da (nire iritziz) musu horren benetako hartzailea, haren anaia Malthers baizik, baina hori ez daki Camillak, eta horregatik sentitu da deseroso. Nolanahi ere, oso irudi ausarta da, lekua eta garaia kontuan hartuta. Batzuek ipuin honetan ikusi uste izan dute jarrera lesbiko bat; nik, ordea, ez dut horrela interpretatu.

30) Gau bat Akadian.-

Liburu honetako kontakizunik "luzeena" izan daiteke (komatxo artean esanda, orokorrean kontakizunik luzeena laburra delako). Akadia izeneko leku batean gertatzen da. Ez da izen hau aipatzen den lehen aldia, soinu berezia du... Leku mitikoen soinu-edo (liburuan zehar errepikatzen diren beste toponimo batzuekin gertatzen den bezala). Antza denez, gizon bat eta emakume bat predestinatuta daude elkar ezagutzera. Kontakizunaren bilakaerak neurri batean ukitu erromantikoa du, baina baita ukitu basatia ere. Ustekabetasunak agintzen du. Ez da falta borroka on bat, ukabilkadaka; borroka honek erabakiko du neska-lagunaren zoria, zeinak borrokari begira irauten baitu, zuriz jantzita, erdi jostaturik erdi hotzik.

31) Zetazko galtzerdi pare bat.-

Emakumeek unetxo bat beraiantzat hartzeko beharra aldarrikatzen du Kate Chopinek ipuin honetan. Protagonistak nekez aurreztu ahal izan dituen 15 dolarrak erabili nahi zituen bere senideei beharrezko zenbait gauza erosteko, hala nola arropa, zapatak, eta abar. Baina, ustekabean, beretzat erabiltzea erabakitzen du. Aldiz, ez da egoismo-

ekintza, autoestimuekintza baizik. Mezua hau da: ez diezu besteei % 100 eman behar; ehuneko txiki bat zuretzat ere gorde dezakezu, ondo sentitu zaitez, apetaxo bat bete dezazun. Bizitza propioa izateko eskubidea aldarrikatzeko modu bat da, zure bizitza ez dadin izan beti besteengan diluituriko bizitza bat. Emantzipatzeko modu bat ere bada. Gaur egun, horrek badu izen bat: lana, familia eta bizitza soziala uztartzea.

(Kate Chopin bere garaiko erretratugile handia da. Batez ere hori egiten du: erretratuak. Pertsonak, egoerak eta ezarrirako ordenak erretratatu ditu. Bere garaikideen kanpoko eta barruko bizitza erretratatu du. Eta ondo egiten du. Adeitasunez egiten du, baina irmotasunez eta erabakitasunez.

32) Nég Créol.-

Batzuetan ez dago garbi nola edo zergatik sortzen diren pertsonaien arteko harreman jakin batzuk. Sortzen dira, besterik gabe. Eta badute zerbait irrazionala, zerbait superstiziosoa (berezi ipuin honetan). Erabateko miseria ere askotan agertzen den beste gai bat da; pertsonaiek, ordea, duintasunari eusten diote. Agian, horrela jokatzeko premia dute, hain zuzen, pobrezia horretan duin sentitu ahal izateko...

33) Zigarreta egiptoar bat.-

Ipuin honetan protagonistak porro bat erretzen du. Opioa ere izan daiteke. Kate Chopin benetan bere garaiko aurreratu bat izan zen. Hori bai, protagonista nahiko zentzuduna da: 6 porroetatik bakarrik erretzen baitu (gainerakoak, narratzaileak dioen moduan: "... eskuen artean lauskitu zituen. Leihora joan eta ahurrak zabaldu"). Ipuin hau 15 minutuko tarte batean garatzen da, protagonistaren hitzetan. Bitxia, denborari buruzko aipamena...

34) Familia-arazo bat.-

Hemen "familia-erretratu" bat daukagu, besterik ez. Alegia, ez dago kritika sozialik; kritika indibiduala baizik. Emakume berekoi eta zikoitz baten erretratu da, urteen poderioz are zitalago bilakatu dena. Bere buruaren biktima izanik, pertsona zarpail eta ziztrin baten erretratu da. Charles Dickens-en "Scrooge jauna" bezalakoa, baina kasu honetan amaiera zoriontsurik gabe. Bueno, haren presentzia eta konpainia toxikotik aldentzea lortzen dutenez bai, zorioneko amaiera da...

35) Ekaitza.-

Azken ipuina da eta, gutxi gorabehera, liburuari izena ematen diona. Ez dakit ipuinik onena den, baina bai ausartena, batez ere bere garairako. Kontakizun ona da. Eta ohore egiten dio izenburuari: ekaitza. Zeren, ekaitz fisikoaz gain, esan daiteke pasiozko beste ekaitz bat ere lehertzen dela. Harreman estramarital hauek ezkontzaren arauak hausteko eta aire fresko pixka bat bilatzeko behar modura ere interpreta daitezke...

(Liburu honetan "ahozko adierazpenak" duen garrantzia gogoratu beharrik ez dago. Itzultzaileak berak hitzaurrean azaltzen duen bezala, "Hizkuntza xehe hori emateko, nire inguruko txikitako euskara erabili dut, belarrian dudana". Inoiz edo behin ez da ehuneko

ehunean ulertzen, baina, oro har, ez da aparteko arazorik sortzen; aitzitik, oso atsegina da ahozko hizkuntzaren imitazio horiek "irakurtzea", eta komatxo artean jarri dut, "irakurri" baino gehiago "entzun" egin behar direlako. Belarriko euskara belarriarekin "irakurri" behar da, eta orduan, dena da errazago, naturalago eta logikoagoa). Honelakoak topatu daitezke:

nô = nago; jun = joan; bê = gabe; zâ = zara; bat ê = bat ere; elizâ = elizara; nôla = nuela; hôn = huen; jun e'in tziñan = joan egin zan; dôn = dagoen; dô = dago; tzôn = zuen; di'e = dire (dira); môn = moduan; makillâ 'ten môn = makila baten moduan; etôr tzikon = etorri zitzaion; bota donên = bota duenean; 'etzôn ba hartuko = ez zuen ba hartuko; ; bê = bere; ê = ere; ge'atu gâ-ta = geratu gara-eta; etâ = atera; eta abar, eta abar.

Nolanahi ere, eta esan dudan bezala, hobe da esaldi horiek "belarriarekin" irakurtzea begiarekin baino, eta orduan bai, ikusiko duzue esaldi gehientsuenak nola azaltzen diren hortxe begien aurrean eta nola ez dagoen aparteko arazorik eragiten duten plazer estetikoaz gozatzeko, salbuespenak salbuespen.

Eta hiztegiari dagokionez, Maryse Condé-ren itzulpenarekin (Bihotza negar eta irri) gertatzen zen bezala, Ipar Euskadiko euskalkietatik hartutako hitzak edota gaur egun gutxi erabiliak diren terminoak sakabanatuta agertzen dira liburuan zehar, baina oraingoan ez dira hain ugariak, oro har, eta horrek lagundu egiten du irakurketa arintzen, behintzat Hegoaldeko irakurleontzat. Hona hemen hitz horien zerrenda (hitz horietako batzuk ezagunak egingo zaizkie Maryse Condé-ren ipuin-bilduma aipatua irakurri dutenei):

Abantzu	Ia-ia, kasik
Aldaratu	Baztertu, erditik kendu, apartatu, -tik kendu
Aldeztu	Defenditu, -ren alde egin
Ameneko	Agian, beharbada
Aratxe	Txahal, zekor, txekor
Arraitsu	Distiratsu, dirdaitso
Astrapala	Zarata, zalaparta, iskanbila, harrabots,
Atoan	Behingoan, berehala, segituan
Atxapar	Landare baten izena (madreselva)
Atzendu	Erdizka ahaztu
Azantz	Zarata
Azieta	Platera
Bai kuantu!	Bai horixe!
Baiki	Hain zuzen
Belu	Berandu
Berro	Sasi, lahar
Bulta	Erasoaldi, bultzada, atake,
Desaizu	?
Despit	Mespretxu, erdeinu
Edeki	Kendu, atera, erauzi

Elaire	Ezagun (zu eta biok ezagunak gara)
Endaitz	Pertika, timoi
Erasiatu	Errieta egin
Erresalbu	Zuhurtasun // salbuespen
Erridau	Gortina, errezel
Erromara	Langa
Eultze	Erlauntz
Fazoin	Era, modu
Firurikatu	Biratu, jira egin, jiratu
Gaitzikor	Suminkor, haserrekor; mesfidati
Ganbela	Aska
Girgilu	Bilur
Goganbehar	Susmo, aieru, errezelo
Gurgur	Zurumurru, murmurio
Hamikatu	Ahitu, akitu, ahuldu
Hastandu	Urrundu, apartatu
Hauta-mauskan	?
Ihakin (bat egin zuen)	Keinu (bat egin zuen)
Iretargi	Ilargi
Istapeka	Zangalatrau
Itzalkin	Eguzkitako,
Izari	Neurri
Jare	Aske
Jats	Erratz
Jendalde	Jende, herriko jendea; herri
Kalpar	Ile-adats
Kantitu	Mugitu // hunkitu
Katamarrean	Lau hankan, lauoinka, katuka
Kuku egin	Amore eman
Laiotz	Goibel (leku goibela)
Likin	Likatsu, lirdinga, itsaskor
Lohadarrak	Gorputz-adarrak
Lohasmara	?
Mahunga	Mahuka
Maker	Desitxuratu, itxuragabe
Mardo	Mardul
Maripulis	Jaka
Mazela	Masaila
Mehaka	Aldaka
Mokolodi	Txori-mota bat
Molokot	Porrot
Negar-marraska	Negar-zotin, zinkurin
Ninika	Begi, ernamuin
Ola	Borda // fabrika...
Ortzantz	Trumoi
Pentze	Belardi, zelai, larre
Pernil	Azpiki; urdaiazpiko
Pikotxean	Kokoriko, kukubilko

Punpuila	Burbuila, anpulu
Pusla	Baba, maskuilu
-ren pentzudan	-ren konfiantzan, -ren itxaropenean
Salbai	Basati
Sastar	Baldar, zakar, landugabe
Soleitu	Kontsolatu
Superra (gorputz osoko superra)	?
Takar	Zakar
Tranpal	Eskailera-buru
Txiker	Txiki
Uzkaili	Irauli
Xaribari	Zalaparta
Xilintxa	Zintzarri, joare
Zilin	Ahul, makal, hildu, ilaun
Zimikatu	Atximur(ka) egin, zimiko egin
Zinginarri	Kutun, amuleto

Zerrenda honetan 85 hitz jaso ditudala uste dut; ez dira asko, kontuan hartuta liburuak guztira 75.000 edo 80.000 hitz inguru izango dituela. Noski, hitz “berezi” guztiak sistematikoki ez ditut jaso, baina bai esanguratsuenak edo esanahi aldetik ulertze-arazoak sor ditzaketenak.

Neure buruari galdetu diot zergatik erabiltzen duen hiztegi hori itzultzaileak (ez liburu honetan bereziki, orokorrean baizik), eta hauek izan daitezke arrazoiak:

- Agian, egileak erabiltzen duen tokiko hiztegiaren baliokidetasunak bilatu nahi dituelako.
- Agian, iraungitzeko arriskuan dauden hitzen alde egin nahi duelako.
- Agian, Iparraldeko euskalkien eta euskaldunen aldeko keinu bat egin nahi duelako.
- Agian, hitz horietako asko itzultzailearen euskalki, kultura eta toki-jakintza propioaren parte direlako.
- Agian, horrek hizkuntza literario bat sortzen laguntzen diolako.
- Agian, horrek idazlearen pareko hizkuntza literario bat sortzen laguntzen diolako.
- Agian, kasuren batean edo bestean, kapritxoz.
- Agian, hitz horietako batzuk itzultzailearen aberri animiko eta linguistikoaren parte direlako.
- Agian, hitz horien estetika bereziki erakargarria kausitzen duelako.
- Agian, senak eta gogoak hala ematen diotelako.
- Agian, arrazoi horiengatik guztiengatik aldi berean.

Edozelan ere, garbi dago arrazoiu daitekeen zerbaitengatik dela; ez dela arbitrarioki hartutako erabaki baten ondorioa. Egia esan, mota horretako hiztegira ohitzen zarenean, gero faltan botatzen duzu topatzen ez duzunean. Lana eskatzen dio horrek irakurleri,

baina oro har merezi du (irakurketa astundu arren). Eta are gehiago merezi du ziur aski, hitz horiek modu orekatsuan tartekatuz gero.

Bestalde, hitz bat gureganatzeko prozesua ez da hain sinplea; esan nahi dut hitzek guran “erroak” botatzen dituztela, eta erroak botatzeko prozesu bati segitu behar zaiola, hitz bat gure egiten dugun arte ala... gure egiten ez dugun arte.

Azkenik, esan behar dut ez dakidala zer gustatu zaidan gehiago, Kate Chopinen liburua ala Joxe Mari Berasategi Zurutuzaren bertsioan euskaraz irakurri dudana liburua. Edozein modutan ere, ederra, oso.